

# Aziera

Aziera edo edukaziñoa bardin da. Ta gai onetzazko zenbaki batzuk ikusiaz ikaratuta lez geratzen gara. Umeak azi ta ezi bearra daukie, baita nagusiagoak be. Osterantzean, zer? Umeak dira biar gizon izango diranak, eta bear dan lez oneik azi ta ezi (edukau) ezik, gizonak ez, piztiak azi ta aterako doguz. Eta orduan, gu gizonok, zek bereiztuko gaitu abere ta pizti-maila-koengandik? Nun litzake orduan gure buru-argia, gure errazoiz jokatzea, munduko errege izatea, nagusitasuna, gure zera?

Zenbaki itza aitatu dot, eta orrela da. Zabaldu edozein paper-orri naiz liburu. Sor ta lor etzara gelditzen? Aziera deritxogun arazoan, esaterako, zenbakiak (numeruak) dardar dagoz. Eta zer dirauskue? Munduko laterriak (estaduak) euren barru-bizitzan egin daroezan gastuak, ez dira makalak, ez dira txikiak. Buruko uleak be tente jarten dauskuezanak baiño.

Denpora gitxi dala Unesko'k iragarri euskunez, munduak gerra tramankuluetan, umeak eta nagusiak eskolatzeko baiño euneko berrogei

bat geiago gastatzen dau. Soldadu bakotxeko urtean 7.000 dolar gastatzen da bataz beste, ta ume bati emon oi yakon azi ta ezitzean 100 bat dolar. Ba-da aldea!

Aunditu ta ugaritu bidean dagozan lurraldeak, munduko gizon eta emakume guztien artean, euneko irurogetamabi bat osotzen dabe; baiña oneik euren jentea eskolatzten gastatzen dabena, besteak gastatzen dabena ondoan % 11 baiño ezta. Azi ta aunditu gurarik dabilzan erri atzeratu orreik, gaiñera, buru bakotxeko («per capita») urtean bost dolar inguru gastatzen dabez eskolatzeko; industri ta olakoetan aurrera dabilzanak, ostera, eun gitxienez gastau oi dabez.

1965 ta 1967 tartean, munduko gudari-gastuak ugaritzeari begiratu ezker, Ipar-Amerikari ta Sobiet-Batasunari yagoke ezbat 44.000 milloi dolarren laurik ia irua. Japon'ek, barriz, eskolatan gastatzen dau soldautzan baiño lau bidar geiago, eta Kanada'k, bi bidar geiago. Beste lurralde lantegiz ornidu batzuk, gudari-arazoetan baiño eskolatan geiago eralgitzen dabena, oneik dira: Belgika, Dinamarka, Italia, Olanda, Noruega, Suezia ta Suiza.

1964-67'an, azi ta borobildu bidean lurraldetakoak, ez ebezan euren gudari (militar) gastuak lantegiz orniduak dagozan laterrien ein eta neurrian eroan. Erri atzeratu orreien eralgitzea, buru bakotxeko, zortzi dolar izan zan bataz beste; aurrerratuak, ostera, 170 bat dolar gastatzen ebezan. Lenengo orreitan, baiña, euren bizitz-mailla oso beekoa izanik, zortzi dolar orreik pixu astuna adierazten dabe.

Industriaz eta sal-erosiz ondo dagozan laterriak, erabat, gorago igon nairik dabilzanai eskintzen dautsezan 8.000 milloi dolarren laguntasuna, laterri beeko landu ta ira-

bazi bageen euneko 0,5 baiño gixiago da. Lurralde atzeratu orrei emoten yakon laguntasuna, ba, guztiz exkasa dala esan bear.

Eta zenbaki onei begiraturik, auxe da garbi dakusguna: lur gain onetan mundu bi daukaguzala, baita aberatsena ta bestea beartsu ta ez-eukiena. Baita beste au be: gerrarako, alkar ilteko tresna ta tramankulutan askoz geiago gastatzen dala, umeak azi ta ezi egiteko baiño, gizonaren gogoia kulturatzeko baiño. Ta gizonak kultura bear dau, kultura gorputzerako, kultura animarako.

Barrutia

